

Konrado Mugertza jn.  
Kontseiluburua

Gaizka Gabantxo jn.  
José Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pilar Ramírez and.  
Raimundo Rubio jn.

Eva Blanco  
Idazkari teknikoa

## **07/09 IRIZPENA**

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2007ko ekainaren 28ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Lanbide Hastapeneko Programe-tan, enpresako Prestakuntza Praktikoaren Fasea arautzen duen Dekretu proiektuari buruz.**

### **I.- AURREKARIAK:**

Apirilaren 24ko 72/2001 Dekretuaren xedea EAEn gizarte bermeko prestakuntza ekintzen alderdi nagusiak arautzea da, eta 2. artikuluan zehazten du Sailak baimendutako prestakuntza ekintzak generikoki Lanbide Hastapeneko programak deituko direla. Beste alde batetik, 6. artikulua adierazten du ikasitakoak sakontzeko eta zabaltzeko fase bat eta enpresan praktikak egiteko beste fase bat antolatuko direla lanbide hastapeneko bigarren mailan.

Abenduaren 26ko 304/2000 Dekretuak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarenak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzarenak, lanbide heziketako ikastetxeetako ikasleen txandakako heziketa praktiken programa arautzen du, besteak beste.

### **II.- EDUKIA**

Dekretu proiektu honek 27 artikulua, bi kapitulutuan banaturik, Xedapen Iragankor bat, bi Azken Xedapen eta bost eranskin ditu.

1. artikulua Dekretuaren helburua zehazten du eta 2. artikulua haren aplikazio eremua finkatzen du.

I. kapituluak (3. artikulutik 13.era) enpresako Prestakuntza Praktikoaren Faseko alderdi orokorrak arautzen ditu: ordutegia, salbuespenen tramitazioa eta fase hau EAETik kanpo egiteko aukera. Arautu egiten dira halaber ikastetxearen eta lantokiaren arteko harremanak, ikastetxearen jardunbideak, koordinatzailearen eta tutorearen egitekoak, enpresen edo lantegien jardunbideak, irakaslearen egitekoak, eta ikasleen eskubideak eta betebeharrak.

II. kapituluak (14. artikulutik 27.era) lantokiko Prestakuntza Praktikoaren Fasesko ekintzak finantzatzeko laguntza programaren esparrua zehazten du. Laguntzak aurreikusten dira praktikak egiteko ikasleak hartzen dituzten enpresentzat, ikasleentzat PPF egiteak sortzen dituen gastu erantsiak konpentsatzeko, ikastetxeko tutoreentzat, eta zehaztu egiten dira entitate kolaboratzaileen betebeharrak.

Gainerako artikuluek jasotzen dituzte diru-laguntzen deialdiaren alderdi orokorrak, onuradunen betebeharrak, kudeaketa organoa, ebazteko epeak hala nola helegiteak eta jakinarazteko prozedurak, ordainbidea, ikastetxeen betebeharrak laguntzak tramitatzerakoan, laguntzen bateraezintasunak, laguntza horietarako erabiliko diren baliabide ekonomikoak, ikuskapena eta ez betetzeak.

Xedapen Iragankorra, berriz, diru-laguntzen deialdia egin baino lehenago hasitako espedienteei buruzkoa da.

Lehenengo Azken Xedapenak ahalmena ematen dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari Dekretua aplikatzeko behar diren xedapenak emateko, eta Bigarren Azken Xedapenak araua indarrean noiz jarriko den zehazten du.

Eranskinetan agiri ereduak jasotzen dira: Enpresen eta Ikastetxearen arteko lankidetzak akordioa (I. eranskina), tokiko erakundeen eta Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzak hitzarmena (II. eranskina), enpresentzako laguntza eskaera (III. eranskina), ikasleentzako laguntza eskaera (IV. eranskina) eta entitate eta ikastetxe pribatuak irakasleentzako laguntza eskaera (V. eranskina).

### **III.- BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK**

Euskadiko Eskola Kontseiluak hainbat Dekretu proiektu eman ditu lantokiko Prestakuntza Modulua egiteko baldintzak arautzen dituzten Dekretu proiektuei buruz, zehazki, Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetan lantokiko Prestakuntza Modulua egiteko baldintzak arautzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa, eta Arte Plastikoko eta Diseinuko heziketa zikloetakoari buruzkoa, eta bere oniritzia eman zien batari zein besteari.

Dekretu proiektu honek xeheki arautzen ditu lantegietako prestakuntza modulua egiteko baldintzak Lanbide Hastapeneko Programetarako. Apirilaren 24ko 72/2001 Dekretuak arautzen ditu programa horiek. Dena dela, LOE Legeak aurreikusten du Lanbide Kualifikazioko Programek ordezkatuak dituztela, izan ere, lehen kurtsoa datorren urtean abiatuko da. Bigarren kurtsoa 2008-09 ikasturtean abiatuko da, beraz, Dekretu proiektu honen indarraldiak bi ikasturte baino ez du iraungo.

Irizpen-gai dugun arau honek Lanbide Heziketako Heziketa Zikloetan lantokiko Prestakuntza Modulua egiteko baldintzak arautzen dituen uztailaren 8ko

156/2003 Dekretuak xedatutakoari jarraitzen dio orokorrean, eta irakaskuntza hauen eskakizunetara egokitzen da hezkuntza arloan, bestalde, memorian adierazten den bezala, bakarrik Hezkuntza Sailak kudeatuko du, eta ondo deritzogu horri.

Amaitzeko, irakaskuntza hauetan lantokiko praktikak berariaz arautzeak, gure ustez, lagunduko du irakaskuntza hauek hobeto eta modu eraginkorragoan garatzen, hortaz, egoki deritzogu aurkeztu zaigun Dekretu proiektuari.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2007ko ekainaren 28a

IDAZKARI TEKNIKOA,

Sinaturik: Eva Blanco

Ikus-onetsia

KONTSEILUBURUA,

Sinaturik: Konrado Mugertza

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA  
SAILBURUA.